

GIZA ESKUBIDEEN BORTXAKETA SALAKETA

Soldaduek palestinarrei ematen dizkieten tratu txarrak ikertzen ari da Israelgo Armada

Erredakzioa | DONOSTIA

B'Tselem Lurralde Okupatuetako Giza Eskubideen Informazio Zentro Israeldarrek Tel Aviv-eko soldaduen jokabidea salatzeke argitaratu berri duen txosten bati jarraiki, joan zen astean Hebron (Zisjordania) bi taxitan zihoazen bederatzi zibil palestinarri emandako tratu txarrak ikertzeko agindu zuen atzo Polizia militarra. B'Tselem arabera, hamabi soldaduk taxitik jaitsiarazi zituzten, eta elkarri jotzeko agindu zieten, pistolekin mehatxatuta.

Biktimitako lauk eman zioten gertatutakoaren berri giza eskubideen aldeko erakundea-

ri, eta B'Tselem egindako ikerketen arabera, Shomron batailoiko soldaduek eraso, eta pistola zein kaskoekin jipoitu zituzten. «Auzi hau, zeinaren larritasunak aurreko *intifada*-ko gertakari basatienetako batzuk gogorarazten dituen, agintari militarrek palestinarren duintasunari eta segurtasunari dioten mespretxuaren ondorio da», B'Tselem arabera.

Aitorpena

Shomron batailoiko buru Avi Oved koronelak barne ikerketa bat egin zuen auziaz, eta nahastuta egon ziren soldaduak elkarriketatuta ondoren, palestinarren salaketetako batzuk berre-



PETER DE JONG / AP

Israelgo soldaduak zaintzan, Hebrongo (Zisjordania) eremu palestinar batean.

tsi zituen. Soldaduek aitortu zuten taxiei eraso zietela, ez ordea palestinarrek jipoitu zituztenik ezta lapurtu zietenik ere. Polizia militarra soldaduak

zein zibil palestinarrek elkarriketatzeko asmoa du orain.

IDF Israelgo Defentsa Indarretako buruzagi Shaul Mofazek eta agintaritzak nagusiko

buru Yitzhak Eitanek atseka-bea adierazi zuten igandean soldaduen jokabidearengatik, eta halako jazoerek IDFren irudia kaltetzen zutela esan zuten.

LIOR YAVNE B'TSELEM LURRALDE OKUPATUETAKO GIZA ESKUBIDEEN INFORMAZIO ZENTRO ISRAELDARREKO BOZERAMAILEA

LARRITASUNA

«Lehenengo 'intifada'-n antzeko gertaera larriak jazo ziren, baina joan den asteko erasoak 'intifada' honetako larriena izan da»

LEGEA BETEARAZTEA

«Israelgo Armadaren politika da zibil errugabeak gisa honetara ez tratatzea. Arazoa da Armadak ez duela politika hori betearazten»

«Palestinarrei tratu txarra ematea soldaduen beraien erabakia da»

B'Tselem giza eskubideen aldeko erakundeko bozeramaile Lior Yavnek salatu du Tel Aviv-eko soldaduek aurreko astean zibil palestinarrei egin eraso orain arteko larrienetakoa izan dela

Ainara Mendiola | DONOSTIA

B'Tselem 1989an sortu zuen Israelgo akademiko, abokatu, kazetari eta legebiltzarkide talde batek, Tel Aviv-eko lurralde okupatuetako herritarren giza eskubideak errespetatu ditzen bultzatzeko. Lior Yavne eledu-
nak EGUNKARIARI esan dionez, Israelgo Armada zibilei erasotzearen kontra dago, baina ez du politika hori behar bezala betearazten.

■ **Kaleratu duzuen txostenean salatu duzue Israelgo soldaduek pasa den astean bederatzi zibil palestinar torturatu zituztela Hebron. Soldaduek aitortu dute taxiei eraso zietela, ez ordea palestinarrei. Nahikoa frogatuta dago?**

Gauzak zehazki esateko, IDF Israelgo Defentsa Indarretako eleduak atzo adierazi zuen

guk kaleratu genuen txostenak ez duela tortura jasotzen, tratu txarrak eta jipoiak baizik. IDFk dio salaketa hori egia dela, eta badakigu defentsa indarretako buruak ikerketa bat egitea agindu duela.

■ **Zibil palestinarren aurka-ko erasoak ohikoak al dira IDFrengandik?**

Kasu hau larriena izan da azken urteetan. Lehenengo *intifada*-n antzeko gertaerak jazo ziren, baina *intifada* honetako larriena izan da. Oraingoan tratu txar askoren berri izan dugu, baina ez hau bezain larriak.

■ **Zer ezberdintasun dago tratu txarren eta torturaren artean?**

Tortura galdeketeekin lotzen da, eta hau ez da kasua. Soldadu batzuk palestinarrez abusatzen ahalegintzea izan zen baina ez tortura, informazioa lortzeko edo zerbait aitortzeko.

■ **Polizia Militarrek esan du gertaera ikertuko duela. Uste duzu soldaduak zigortuko dituztela?**

Israelgo legearen eta lege militarren arabera, soldaduek ezin diete tratu txarra eman palestinarrei. Badakit Polizia Militarrek ikerketa bat eskatu duela. IDFko buruzagiak adierazi du kasu hau ikertzea nahi zuela, eta soldaduak zigortzea erruduntzat jotzen badira. Espero dugu gutxienez kasu honetan soldaduak zigortuko dituztela, baina ez dugu horrelako borondaterik ikusten argitaratu ematen ez diren kasuetan.

■ **IDFko buru Shaul Mofazek eta Komando Zentraleko buru Yitzhak Eitanek gertaera deitoratu dute. Lehen urratsa izan daiteke Israelek palestinarren aurka erabiltzen duen indarra murrizteko?**

Kasu honetan bezalako indar-

keria eta tratu txarrak deitoratzea ez da berria. Are gehiago, Armadaren politika da zibil errugabeak gisa honetara ez tratatzea. Gure arazoa da Armadak ez duela politika hori betearazten. Deklarazio hau baino urrunago joan behar da.

■ **B'Tselemek salatu du defentsa indarrei ez zaiela jakinarazten palestinarren aurkako eraso eta tratu txarrak debekatuta daudela. Zure ustez, Israelgo Gobernuak zibilen aurka indarra erabiltzen ari da *intifada* garaitzeko?**

Ez dut uste egia denik. Lehen *intifada* garaian esaten zen Segurtasun ministro Yitzhak Rabin-ek Armadari agindu ziola harriak botatzen zituen jendea-ri eskuko hezurak hausteko. Hori hasieran izan zen, eta gero politika aldatu egin zen; egun palestinar zibil errugabeak tratu txarrak ematea soldaduen erabaki independentearen ondorio da, ez politika ofiziala. Arazoa da tratu txarrak ez emateko politika ez dela behar bezala betearazten.

■ **Altzamenak hasi zenetik urtarilerako artean IDFk atxilotu, harriak jaurtitzeaz auzipetu eta zenbait hilabete-
tarako espetxe zigorra jaso duten palestinarren lekukotzak bildu dituzue, haietako batzuk adin txikikoenak. Tratutxoak izan zuten?**

Adin txikiko horiek torturatuak izan ziren komisarian. Israelek

ez du ofizialki berretsi torturatuak izan zirela; auzia orain ikerketapean dago. Hala ere, B'Tselemek argitaratzen duen edozer informazio kontrastatuta egoten da hainbat modutan, eta ziur gaude kaleratutakoaren egiazkotasunaz.

■ **Soilik IDFk ematen dituen tratu txarrak eta tortura kasuak ikertzen dituzue, ala Palestinako Poliziak egindakoak ere bai? Izan ere, palestinarrek zenbaitetan haien Polizia ere salatu izan dute.**

B'Tselem lurralde okupatuetarako giza eskubideei buruzko informazio zentro bat da eta horregatik lurralde okupatuetan gertatzen den giza eskubideen urraketa oro aztertzen dugu, israeldarrek zein palestinarrek eginak izan. Baina kontua da Israelgo erakunde bat garela, eta nagusiki Israelgo Gobernuak egiten dituen bortxaketak aztertzen ditugula. Hala ere, urte askotan argitaratu izan ditugu palestinarrek egindako bortxaketei buruzko ikerketak, oraingo *intifada*-n egindakoak barne.

■ **Zein iritzi duzu Palestina-ko Poliziaren jokabideaz?**

Intifada honetan ez dugu nahikoa denbora eta giza baliabide izan giza eskubideen urraketa guztiak aztertzeko. Baina Palestinako giza eskubideen erakundeek segurtasun indarren jokabidea salatu dute.

■ **Non du jatorria oraingo giza eskubideen urratzeak?**

Intifada honek eramaten gaitu okupazioaren aurretik, 1967-an, bi aldeetatik izan zen giza eskubideen urratze multzora. Egoera hau aldatzeko aukera da kanpoko jendeak bi gobernuak estutzea.